

## ASTEARI ZEHARKA BEGIRA

Ultraeskuinak ez du Euskal Herrian eserlekurik lortuko **IÑAKI ALTUNA > 9**

«ASKAOT»: Bunuztar Xoriak dantza taldearen 50 urteak ospatuko dituzte Oztibarren **> 18**

2024ko uztailaren 6a | XVIII. urtea • 883. zenbakia  
0,50 euro

# GAUR8

mila leiho zabalik  
[www.gaur8.info](http://www.gaur8.info)



# ARRATIAKO TRANBIAREN OROITZAPENAK

BILBO, ARRATIA ETA DURANGALDEA  
LOTZEN ZITUEN TRANBIAK SEKULAKO  
ARRAKASTA IZAN ZUEN XX. MENDE  
HASIERAN. JON URUTXURTUK  
GARRAIOBIDEAREN HISTORIA GRAFIKOA  
BILDU DU ORAIN. **> 10**





4



8



14

## SINADURAK:

- 03 **Maite Ubiria Beaumont:** Noiz helduko zain zinen, baina etxean zenuen piztia
- 08 **Saioa Aginako Lamarain:** Saihetsezina
- 09 **Iñaki Altuna:** Ultraeskuinak ez du Euskal Herrian eserlekurik lortuko
- 13 **Amaia Ballesteros**
- 17 **Xabier Izaga:** Bere burua nabarmendu gabe, lorratz nabarmena
- 21 **Itzea Urkizu Arsuaga:** Gehiegi
- 21 **Miren Azkarate Badiola:** Ezkutuko izenak
- 22 **Maidor Azanza Sesé:** Software probak: nahi eta nahi ez



**Nanasera, Adriatikoaren bi ertzak lotzen dituen hizkuntza formako altxorra, galtzear da** 04

**Arratiako tranbia, 60 urtez baino gehiagoz Arratia eta Durangaldea Bilborekin lotu zituen garraioa** 10

**Gertuko planak: Artziniega Museoan bisita denboran atzera bidaiatzeko** 14

**«Askaot», Oztibarreko Bunuztar Xoriak dantza taldearen sorkuntza 50. urteurrena ospatzeko** 18

**Juantxo Egañaren behatxulotik** 31



18



22



{ datorrena } **Maite UBIRIA BEAUMONT**

# Noiz helduko zain zinen, baina etxean zenuen piztia

C esy herria gutxitan albistegietan agertzen den Ain izeneko departamenduan dago. Bertako biztanle batek, Mouradek, jipioia jaso zuen kalean algaran ziren bi pertsonari auzoen atsedean orduak errespetatu behar zutela esatera ausartu zelako. Hamar eguneko lan uztea agindu zion medikuak. Zauri larriak eragin zizkioten erasotzaileek hiru urteko kartzela zigorra jaso dute.

Ez zen liskar soila izan, hil egingo ote zuten beldur izan zelako Mourad. Ez zen alkoholaren gehiegizko kontsumoaren aitzakiari helduta erraz gutxietsi zitezkeen pasadizoa izan. Erasotzaileek «joan zaitez zure herrialdera» bota ziotelako biktimari.

Mouradek, ordea, ez du beste herrialde batera joateko aukera. Berak, jaiotzez, hezkuntzaz, bizimoduz, baita borondatez ere, bere bi erasotzaileekin aberria partekatzen duelako. Frantsesa da, nahiz eta bere herrikide batzuek kanpotartzat duten. Are, beraien ustez atzerritik etortzen direnek jaso behar duten tratu eman zioten Mouradi. Erasoi buruzko sakoneko arrazoiak auzi arrunt baten bidez argitzea espero zuen gizonak. Ez zioten aukera eman. Erasoa gertatu eta pare bat egun geroago auzi azkarra egin zuten. Hala, bigarren mailako auzi administratibo gisa hartu zuten, nonbait, berari gertatutakoa. Hurrengo urratsa zein izanen da? Afera arrazakeriari buruzko txostenetatik kanpo uztea?

Orain hemerrotekara joz gero, eraso itxuraldatu dutela jabetuko gara. Auvergne eskualdeko hainbat hedabide irakurrita, nekez susma daiteke gizarte osoari kalte egiten dion bortizkeria ekintza gertatu zela 5.000 biztanleko herri txiki horretan. 'Le Progres' izeneko kazetaren arabera, «gazteen arteko liskarra tartean, sare sozialen bidez zabalduriko irudiek komuni-

tate musulmana asaldatu dute». Albisteari emandako tratamenduaren bidez, gertatukoaren larritasuna biktimari esleituriko komunitate kidetasunaren arabera baloratzeko gonbidapena jaso du irakurleak.

Ezberdintasunen bilakaera neurtzen duen behatokiak iaz plazaratu zuen txostenak hau zioen: frantziarren %60k ez du bere burua arrazistatzat hartzen. Ikerketa lanaren arabera, azken hogeitun urteetan erdira jaitsi da haien burua arrazistatzat aldarrikatzen duten herritarren kopurua frantziar Estatuan. Alta, eraso arrazisten bilakaeren azterketak erne izatera eramaten du, ezinbestean.

Antisemitismoa izan da amaitzear den hauteskunde legegileen kanpainaren ardatz nagusietako bat. Horretan ere desitxuraketa erraldoia gertatu da. Erre-

Ezkerra antisemitaren mamu sinesgaitza puztu dute hauteskunde kanpainan, Albin, Rouenen edo Lyonen "Aüslander raus" (atzerritarrak kanpora) ereserki nazia kantatzea bihurrikeria bezala hartuta

sistentzian izan zirenen oinordekoak juduen jazar-tzailatzat jo dituzte. Aldiz, konzentrazio-eremuetara eramane zituztenen follower berriak abantzu juduen babesle gisa moztarrotu dituzte.

Giro gaiztotu horretan, eraso arrazistak eta homofoboak biderkatu direlako arrangura agertu du LDH elkarteak. Rouen edo Albin "Aüslander raus" (atzerritarrak kanpora) himnoa entzuten da kontzertu geletan. Lyonen, neonazien desfileak zeharkatzen dituzte lehenagotik ere karrikak herraren mezuak barreiatuz. Bihar, lurralde askea irudikatuz harresia altxatzeko erronka du Euskal Herriak. Botoa ematea ez da aski, ziur; bai, ordea, ezinbesteko urratsa. •



# NANASERA

## Italiako hizkuntza «txikiena»

ADRIATIKOIA / Karlos ZURUTUZA

Jakin bagenekien erre-pideak izango zirela arazorik handiena. Bat-batean, Montemitrorra bidean, Napolitik ekialderantz irten eta bi ordura, autoaren eta mugikorraren GP-Sek hainbat aukera proposatu dituzte. Legar eta hauts artean beste kotxe bat agertu da. Norbaitek leihatila jaitsi du: Montemitrorra iritsi baino lehentxeago desbideratuko da; herriraino sigi-saga doan erre-pidean utziko gaitu. Ados, eta *grazie mille!*

Italiako hegoaldean gaude: Apeninoetako tontor elurtuak

Adriatikoaren bi ertzak lotzen dituen pasarte historiko baten lekuko zuzena da, baina italiar gutxi dute bere berri. Egun, hiru herritan baino ez da hitz egiten, eta entzutea gero eta zailagoa da. Ahaleginak ahalegin, datozen hamarkadotan joango zaigu. Berarekin batera, ha-maika altxor eta sekretu.

ditugu mendebaldean, eta Adriatika bistan. Molise izeneko eskualdean gaudela ere esan genezake.

«Molise? Ez dakit non dagoen». Entzun dugu. Baita Italian ere.

Hein batean, ulertzekoa da. Molise eskualde ttipia 1963ra

arte baino ez zen agertu mapetan. Hain da ezezaguna, non berarekiko ezjakintasuna txiste nazional bilakatu den, bai eta fenomeno kultural ere: liburuak, abestiak, bideoak, antzerki-bakarrizketak... Denek egin diote erreferentzia; tartean, Beppe Grillo komediagi-

Santa Luziako ermitara erromerian, Pazko-domekan.  
Laura GIORGIETTA

leak edota Matteo Renzi lehen ministro ohiak. Facebook-eko orri ezagun batek (*Io non credo nell'esistenza del Molise izenekoa*) mitoa hauspotu du, «*Molise'n t'*» produktuak salduz: kamisetak, katiluak... Badira bere existentziari buruz espekulatzen duten artikuluen sendoak ere. Sareetan *#ilmolise-nonesiste* etiketa bilatuz gero, Narniarekin alderatuta topatuko duzue, erraz.

Irudimenaren jolas bat ote da Molise? Ilusio hutsa?

Hala dirudi maiz. Montemitrorra iristean, esaterako, seinale elebidunek ematen digute ongietorria. Antza, erdigune historikoari *Stari grad* esaten zaio, eta *ljekarna* farmaziari. Dena den, Montemitro italiar herria da, peto-petoa: eguerdian ez dago arimarik bere kaleetan, ezin zaio inori deus ere galdetu arratsaldeko lau rak arte. Orduan, taberna eta janari-denda bat irekitzen dira. Udaletxearen eraikin berean daude biak. Bere fatxadatik, Kroaziako bandera bat zintzilik dago, Italiakoaren eta Europakoaren ondoan.

Azken bost mendeotan, Montemitron eta inguruko bi herritan kroazieraren aldaera zahar batez mintzo izan dira bertakoak. Edonola, baieztapen hori ez omen da oso zehatza. 32 urteko musikari eta hizkuntzaren aktibista dugu Lorenzo Blascetta. Gogorarazi digunez, Kroazia ez zen existitzen bere arbasoak hona iritsi zirenean, ez eta Italia ere. Bere ama hizkuntza, alabaina, itsasoz haraindik ahots horren lekuko zuzena eta bizia da egun.

«*Na našo* deitzen diogu, hau da, 'gurea' edo 'gure erara'», azaldu digu Lorenzok. Musika-proiektu batek bere energia xurgatzen duela ere aitortu digu molisetarrak. Taldeak





Kroatarantata izena du. Ziurrenik, hitz-joko adimentsu horrek azaltzen du hobekien herri honen sentimendua: Kroazia batetik, italiar tarantela edo tarantata bestetik... Lorenzok dioenez, nanaserak (euskararen araua erabiliko dugu hemendik aurrera) Moliseko hiru herritan bizirik dago oraindik: Montemitron (*Mundimitar*, kroazieraz) haurrek oraindik hitz egiten dute, edo behintzat, ulertzen dute; Acquaviva Collecroven (*Kruc*) haien gurasoen adinekoek bakarrik; San Felicen (*Filic*), berriz, aitona-amonek eramango dute hilobira.

#### ITALIAKO «BESTE» HIZKUNTZAK

Bost mende atzerantz jo behar da Italiako gutxiengo linguistiko txikiaren jatorria aurkitzeko. Otomandarrak nagusitzen ari ziren Balkanetan orduan, eta garaiezinak ziruditen. Aragoiko errege Fernando I.a Napoliko agintari gorena ere bazen. Bertan, izurriteak eta lurrikara izugarri batek (1456) sortutako triskantzak kezkatzen zuen Fernando, bai eta lurraldearen despopulazioak ere. Egoerari buelta emateko asmoz, Gjergi Skanderberg albaniarren buruzagiari ireki zizkion ateak; jarraian, Dalmaziatik ihes egiteko irrikan zeuden eslaviarrei. Ez dakiugu Barisictarrak noiz bihurtu ziren Barsiciano, Bartolino Bartulovictarrak, edo Blascetta Blascivictarrak, beste askoren artean. Baina jakin badakigu Moliseko tontoretik aldendutako hamabost herritan instalatu zirela. Abeltzainak eta nekazariak ziren denak. Inoiz lur idorra zen horretan, ardo eta olioeko ekoiztu dute egundaino.

Molisen ez ezik, Calabrian eta Sizilian ere bizirik dirau antzinako albaniar aldaerak ("ar-



beresa" deitzen diote). Eslaviar hiztunak direla eta, aipatu dugu Moliseko hiru herritan baino ez dela hitz egiten. Molisek italiar iruditerian tokirik ez duela ikusita, alferrikakoa da nanaserari buruz galdetzea. Nahikoa da La Feltrinelli liburu-denda kate horretako apaletan begiratzea: hizkuntzalarietakoa da sekzio txikiena beti.

«Italian ez dago beste hizkuntzarik, italiaren dialektoak bakarrik». Hori ere entzun dugu, maiz, eta liburu-denda batean baino gehiagotan. Ez da egia, italiaren «dialekto» gehienak ez dira italiaren «alabak», «ahizpak» baizik. Nozcentoko hizkuntzalari handi Giovanni Battista Pellegrinik honela zioen: «Hainbat italiar aldaeraren arteko distantzia frantsesaren edo portugalesaren artekoa bezain handia izan dai-

Montemitro da nanasera  
hizkuntza gorde duen  
munduko hiru herrietako  
bat.

Karlos ZURUTUZA

teke». Hori gutxi ez eta, italiaraz gain, hamabi hizkuntza gehiago zenbatu ditugu: albaniera, alemana, greziera, sardiniera, esloveniera, francoproventzala, katalana, friulera, ladinoa, okzitaniera, frantsesa eta, jakina, nanasera. Ez da harritzekoa, beraz, Italia Europako hizkuntza-aniztasun handiena duen herrialdea izatea. Erromak, alabaina, 1999. urtera

arte ez zuen sinatu gutxiengo linguistikoaren ituna, Italiako «beste» hizkuntzei babesa bermatuko ziena, alegia.

Ordurako, Montemitroko beste gizaseme batek, Antonio Sammartinok, urte ugari zeramatzen ipuinak, abestiak eta poemak biltzen, bai eta nanaseraren lehen gramatika idazten. Sammartino Kroaziako ohorezko kontsul bilakatu zen 2004an. Herri sarre-rako bere etxean oraindik ere ikus daiteke hiru banderei (Italia, Kroazia eta Europar Batasuneko) eusten zien burdinazko euskarria. Espero legez, horrek guztiak berebiziko interesa piztu zuen Adriatikoaren beste aldean. Sammartinoren ahalegina izan zela eta, askok lehendabiziko aldiz izan zuten «antzinako kroaziar» haien berri.

**Nanasera kroazieraren aldaera zahar bat dela esan liteke, baina definizioa ez da oso zehatza. Duela bost mende Molisera iritsitako dalmaziarrengan dago hizkuntzaren jatorria**

**Moliseko hiru herritan bizirik dago oraindik nanasera: Montemitron (Mundimitar, kroazieraz) batez ere, eta Acquaviva Collecroven (Kruc) eta San Felicen (Filic), zertxobait**





Egia da, halaber, maitasuna bere bidean gurutzatu zela. Zagreben, hain justu.

«Antonio bere nanaserazko hiztegia osatzen ari zela ezagutu genuen elkar. Topografoa zen, eta lan handia bazuen ere, denbora ateratzen zuen hizkuntza ikertzeko», diosku Vesna Ljubic-ek. Sammartinoren alarguna da. Duela hiru urte erretiratu aurretik, Vesnak kroazierazko eskolak ematen zizkien Montemitroko haurrei. Egitasmoa bera joandakoan itzali zen, baina hizkuntza ekintzaile sutsuak lanean dihardu, beti Adriatikoren bi ertzak lotzen dituzten proiektuetan. «Europar gutxiengo kroaziar-molissarra sustatzea» helburu duen fundazio bateko kide da. Besteak beste, kroaziar hizkuntza-ikastaroak, argitalpenak, erakusketak, kultura-jaialdiak eta nanaserazko poesia-lehiaketak egiten dituzte.

Zagrebarrak Montemitron paseatzeko gonbita luzatu digu. Harrizko kale estu eta bihurriak dira, aldapatsuak denak. Bigarren Mundu Gerran eroritako herriko gazteen izek ikusi ditugu, marmolez grabatuta. Hainbat etxetako ateetan, berriki joan direnen eskelak itsatsi dituzte. Han-hemenka, harrizko etxeen itzaletan, egurrezko bankuak daude. Italierazko eta nanaserazko poemez josi dituzte beren bas-

**Duela hiru urte erretiratu aurretik, Vesna Ljubic-ek kroazierazko eskolak ematen zizkien Montemitroko haurrei. Egitasmoa bera joandakoan itzali zen, ordea**

**60 urte bete berri dituen Gabriel Pescaran bizi da, baina asteburuero bueltatzen da herrira. «Nanaseraz hitz egitea aire freskoa arnastearekin konparatzen dut beti», diosku**

Seinale elebidun bat,  
Montemitroko sarreran.  
Karlos ZURUTUZA

tidoreak. «Etxe honetakoak urrea aurkitu zuen Australian eta ia jauregi bihurtu zuen berea», diosku Vesnak. Emigrazioa izan da, hain zuzen, Italia hegoaldeko herritar askoren irtenbidea. «Erromarantz edo iparraldeko hiriburuetarantz jo dute askok. Montemitron etxea mantendu arren, gero eta nabarmenagoa da herriaren eta, oro har, eskualdearen despopulazioa» damu du kroaziarrek.

Montemitroko kale altuenetik, teilazko itsaso baten gainean, Adriatikoa ikusten da. «Berrehun kilometro besterik ez dira Kroaziaraino», dio Vesnak, begiak beste ertzean ainguratu ostean. Handik etorri zen duela hogeitau urte, eta nostalgia agerikoa du. Esan liteke hizkuntza izan duela aterpe kroaziar honek. Urte erdi kostatu omen zitzaion nanasera arazorik gabe ulertzea, hiz-

kuntza Italia hegoaldeko ahots erromantzeekin nahastu baita mendeetan zehar. Adituek diote Kroaziako Adriatikoko uharteetan eta kostaldean hitz egiten denaren oso antzeko aldaera batetik datorrela. Nanaserak turkiar mailegurik ez duenez, otomandarrak Balkanetara iritsi baino lehenagoko garai batean koka daiteke.

Kalean behera goazela, ezin besteko geldialdia egin dugu *Nas Grad* («gure herria») *circulo ricreativo*-an. Karta partida eta ardo zurruten artean, bertan elkartzen dira herrian gelditu direnak eta «asteburueta» molisetarrak. 60 urte bete berri dituen Gabriel Pescaran bizi da, baina asteburuero bueltatzen da herrira. «Nanaseraz hitz egitea aire freskoa arnastearekin konparatzen dut beti», diosku. Besteak beste, herrian bizi den Antonekin elkartzen da. «Kroaziarra» ez, «hizkuntza eslaviarra duen italiarra» dela berretsi digu azken horrek. Herrian kroaziar banderak paratzea «ergelkeria hutsa» dela errepikatu du. Dagoeneko jakin badakigu: identitatearen auzia uste baina korapilatsuagoa da Italiako bailara hauetan.

Moliseko eslavieraz idatzitako olerki batzuk bidali dizkiogu Marc Casals-i. Zagreben bizi den kazetari eta idazle katalanak idazle kroaziar batzuen lana gaztelaniara ere itzuli du. Esanahia harrapatzen diela diosku, hitzen erdiak ulertzen dituela, gutxi gorabehera. Aldi berean, hizkuntza izendatzeko *na našo* formula oso interesgarria iruditu zaio.

«Jugoslavia ohiko 'serbo-kroaziera-kroatoserbiera' izen ofiziala galdu egin zen, eta kaotikoa da oso oraingo egoera. Jendeak dio 'bosnieraz', 'kroazieraz', 'montenegroeraz'

eta 'serbieraz' hitz egiten due-  
la, baina horrek ez du esan  
nahi hizkuntza desberdinak  
direla uste dutenik. Egoera  
sinplifikatzeko eta arazoak  
saihesteko modu bat *naš jezik*  
(‘gure hizkuntza’) deitzea da  
edo, besterik gabe, *naš* (‘gu-  
rea’), Molisen bezala», azaldu  
digu katalanak.

Balkandarrak, italiarrak...  
Adriatikoaren seme-alabak di-  
ra denak. Mussolinik «italiar  
itsaso» bihurtzea zuen amets,  
bere bi ertzak mendean har-  
tuz. Ezinezkoa da, ordea, Euro-  
pa germaniar, latindar eta bal-  
kandartik edaten duen  
magma-isuria baita. Claudio  
Magris idazle italiarrak «mi-  
krokosmos» bat zela zioen, eta  
«miniaturazko planeta» deitu  
ohi dio Robert Kaplan estatu-  
batuarrak. Egia da Adriatiko-  
aren tamainak ez duela irudika-  
tzen, inondik ere, bere  
benetako dimentsioa. Monte-  
mitroko taberna bakarrean,  
honako hau entzun dugu:  
«Hanka bat ertz honetan dau-  
kat, eta hango hartan bestea».  
Fabiana Georgietta tabernaria-  
ren hitzak dira.

#### OROITZAPENA GORDE

Montemitron ez bezala, San  
Felicen ez dago kroaziar ban-  
derarik, ez eta errotulazio ele-  
bidunik ere. Era berean, erraz  
egiaztatu dugu hizkuntza hel-  
duenen artean baino ez da-  
goela bizirik, eta nekez.  
«Mahai horretan partidari ari  
diren zortzi aitona-amona ho-  
rietatik bakarrak hitz egiten  
du», esan digute Bibaculus ta-  
bernako barratik. Herriko er-  
digune neuralgikoa den ho-  
rretan, adinekoak dira  
gehienak. Gazteak joan egiten  
dira. Lana ez dago faltan ez  
landa-eremuan, ez itsasoan,  
baina ez dago beste zeregin  
askorik. «Klima ona da eta

paisaia ederra, ezta? Ezin gara  
kexatu», entzun dugu.

Hamabi kilometro besterik  
ez dira Montemitro eta Acqua-  
viva artean, baina 40 minutu  
behar ditugu iristeko. GPSak  
iradokitako bidea hesi batek  
moztuta zegoela ikusi ondo-  
ren, atzera jo eta zuloz jositako  
errepide estu hartatik jo dugu.  
«Moliserak turistak erakarri?  
Nork igaro nahi ditu oporrak  
errepide hauetan?». Hori ere  
entzun dugu. Tira, Acquavivan  
gaude, azkenik. Nicola Neri  
omen da herriko seme ospe-  
tsuenetako bat. Medikua eta  
idazlea izateaz gain, bere hiz-  
kuntza nahiz Napoliko Errepu-  
blikaren defendatzaile sutsua  
izan zen Neri, 1799an exekutatu  
zuten arte. Plazaren erdian iku-  
si dugu, marmolezko plaka ba-  
tean. «*Nemjote zabit nas lipi je-  
ziki*» («Ez ahaztu gure  
hizkuntza ederra») irakurri du-  
gu horretan, italierazko itzulpe-  
naren alboan.

Mezuak kontzientziak astin-  
tzen jarraitzen du, batez ere Os-  
car Vetterena. 38 urteko udal  
langilea nanaseraren hiztun  
gazteenetako bat ere bada Ac-  
quavivan. Autobus geltoki albo-  
ko terraza batean genuen hi-  
tzordua, baina ordu laurdeneko  
atzerapenaz bertaratu da. Erlo-  
juaren kontra ari da lanean  
proiektu bat epe barruan entre-  
gatzeko: artista kroaziarrak  
gonbidatu nahi ditu Acquaviva-  
ra, bertan sortu dezaten. Artea  
sustatu baino gehiago, galtzen  
ari den harremana berreskura-  
tu nahi du Oscarrek. Gogoan du  
oraindik irakasle kroaziarrak  
hona etortzen zireneko garaia.  
«Urtebete ematen zuten, baina  
egun inork ez du etorri nahi»,  
damu du gazteak.

Bada, ez al luke kroaziar es-  
tandarraren irakaskuntzak na-  
naseraren berezitasuna urratu-  
ko? Dagoeneko bost mende

eman ditu kapsula latindar ba-  
tean, galaxia eslaviarretik des-  
konektatuta. Oscarrek aitortu  
digu ez dela konponbide ideala,  
baina kultur oinarri bat eskaini  
ziola berari umetan. Ez da  
nahikoa izan.

«Duela ez hainbeste, herriko  
norbaitekin ezkontzen ziren  
kanpotarrek nanasera ikasten  
zuten, baina gaur ez da horrela.  
20 eta 40 urte bitarteko herriko  
jendeak ulertzen du, baina ez  
du hitz egiten. 20 urtetik behe-  
rakoentzat, aldiz, beste garai  
bateko oihartzuna da, ia ia»,  
azaldu du. Molise osoan 600  
bat hiztun baino ez direla azpi-  
marratu du.

Nanaseraren biziraupena  
kinka larrian ikusten al du Os-  
carrek? Jakina, baina errealista  
da, bai eta zintzoa ere. Ez du

## Hamabi kilometro besterik ez dira Montemitro eta Acquaviva artean, baina 40 minutu behar izan ditugu iristeko zuloz jositako errepide estu batean

### «Oso gutxi gara, eta are gutxiago hizkuntzarekiko interesa dugunok. Jende gehienari berdina zaio», bota digu, zintzo eta errealista, Oscar udal langileak

errudunik bilatzen kanpoan, ez  
Erroman ez beste inon. «Oso  
gutxi gara, eta are gutxiago hiz-  
kuntzarekiko interesa dugu-  
nok. Jende gehienari berdina  
zaio», bota digu. Hizkuntza bi-  
zirik mantentzea baino gehia-  
go, bere oroitzapena gordetzea  
da erronka nagusia egun. Hori  
ere bere ahotik entzun dugu.

Arratsaldeko zazpiak,  
Montemitroko «Nas  
Grad» zentroan.  
Karlos ZURUTUZA







**Saioa AGINAKO LAMARAIN**  
Psikoterapeuta

## Saihetsezina

**B**erriz ere, azalak itxi eta amaieratik hasierara noa. Izenburua berraurkitzeko, ondoan duen ilustrazioari arretaz begiratzeko, liburu hori nire besoetan sartzeko eta minutu batzuk isilik egoteko, nire gogo bere hitzetan, bere orrialdeetan, bere historian barrena bidaiatzen ari den bitartean. Baina errealitatera itzuli behar dut, gustatu ala ez; iritsi da bere amaiera, beti gazi-goza den amaiera hori, istorio bati lotu zarenean eta isil-isilik bere igarotzea zurearekin nahastu denean.

Gure bizitza zikloz beteta dago, hasi eta buka. Beraz, printzipio eta amaiera ugari biziko ditugu. Batzuk lehen pertsonan biziko ditugu, gure bizitzako etapak izango dira; beste batzuk, berriz, beste pertsona batzuen istorioen bidez biziko ditugu. Berdin dio istorio horiek luzeak edo laburrak diren, orduak, egunak, hilabeteak edo urteak ere iraun ditzaketen. Edonola ere, denak iristen dira amaierara. Beraz, zailagoa da onartzea bizitza ziklikoa dela, eta etapa bakoitzak bere unea duela. Zerbait amaitzen denean, jarraipenik ez duen puntua onartu eta aukera berrietara irekitzea besterik ez zaigu geratzen.

Batzuetan amaiera bat idazteari uko egiten diogu; literalki, "bizitza mingosten digun" horri. Jokabide, harreman edo pentsamendueredu horietako askok premia bati erantzuten diote: berehalako ondoeza saihesteari. Hau dela eta, gustura sentitzen ez garen pertsonekin harremanak luzatzen ditugu, edo epe luzera nahi duguna lortzera hurbildu ezin gaituzten ohituren preso gaude edo geldiarazi egiten gaituen leku batean irauten dugu. Batzuetan gugeu aldatu behar gara, eta beste batzuetan amaiera bat jarri besterik ez dugu egin behar. Beste batzuetan, biak.

**Etapak, zikloak eta harremanak ixten jakitea zaila izan daiteke, oso zaila.** Batez ere, zaila delako hain ondo sentiarazi gintuzten pertsonak, uneak edo lekuak atzean uzteko orduan seguru egotea. "Joaten utzi", "askatu", "agur esan". Ekintza handiak sinbolizatzen dituzten hitz gutxi. Ez joan nahi ez duzun lekura eta ez geratu nahi ez duzun edota zaituzten lekuan. Hori oinarrizko premisa bat da, haurtzarotik landu behar dena; behar izanez gero, beti gure behar emozionalak balia ditzagun eta gure bihotzari entzun diezaiogun, egin behar dugunean.

Leku batzuetatik alde egitea ere norbere burua zaintzea da. Pertsona batzuegandik urruntzea ere babesba da, eta ate batzuk ixtea ere elkar maitatzea da. Hori da gure osasun emozionala zaintzeko, balioa emateko, gure bihotza babesteko eta bizitzari aurrea hartzeko mantendu behar dugun

norabidea, sentimenduetan pentsatzeko orduan lehen pertsona jarriz.

Kontua da, amaiera baten aurrean, ez dugula hutsetik hasi behar, baizik eta orain arte bizi izandako esperientzia eta harreman guztiek eman digutenarekin eta ikasi dugunarekin aurrera egin. Egiten ditugun eta gurekin egiten dituzten akatsetatik hazten baikara eta ikasten baitugu. Bizitzan hasten den guztiak, behar denean, amaiera merezi du. Batzuetan positiboa izango da, eta beste batzuetan ez, baina amaitu egin behar da, atea itxi eta beste bat edo batzuk ireki ahal izateko. Bestela, zehaztugabetasun etengabe ko mundu batean biziko gara, non ez den aurrera egiten, atzera baizik, inoiz ez baita ezer amaitzen. Egia da zaila (eta tristea) dela gure istorioei amaiera ematea, baina hori egiten ez dugunean ez dugu istorio berririk sartzen uzten. Ez dezagun hori ahaztu. •



Zaila (eta tristea) da gure istorioei amaiera ematea. GETTY IMAGES



{ asteari zeharka begira } Iñaki ALTUNA

# Ultraeskuinak ez du Euskal Herrian eserlekurik lortuko

**F**rantziako hauteskunde legegileen lehen itzuliak kontu batzuk argitu zituen eta besteren batzuk argitzeke utzi. Bihar izango ditugu lehenengoan baieztapena eta bigarrenen erantzuna. Frantziako parlamentuan lehen aldiz ultraeskuinak gehiengoa izango ote duen dugu auzi nagusia.

Duela urte batzuk ez zegokeen halako galderarik, Fronte Nazionalak lehen itzulian bozen %33 jasotzea ezinezkoa izateaz gain, bigarren itzulirako gainerako indarren eta, oro har, hautesleen jokabidea oso argia izango zelako. Adibide bat jartzearen, 2002ko Frantziako lehendakaritza hauteskunde bigarren itzulian, Jacques Chirac-ek bozen %82,21 jaso zuen eta Le Pen aitak, %17,79.

Bistan da egoera beste bat dela, alde batetik, Frantziako gizartean eta politikan izandako aldaketengatik; bestetik, Le Pen alabaren alderdia bere burua egokitzen joan delako, eta, azkenik, gainerako alderdien jokabidea nahasiagoa delako. Barruti askotan hiru hautagai lehiatuko dira bihar. Beraz, ez da ultraeskuinekoari aurre egiteko aukera bakarria izango, eta horrek, bistan denez, eskuin muturrekoen homologazio indartzen du.

Euskal Herrian irakurketa propioa egin beharra dago. Le Penek ez du hemen hainbesteko indarra, zortzi puntu gutxiago lortu baititu, eta ez delako lehen indarra izan, baina horrek ezin dezake estali 44.000 boz baino gehiago lortu dituela. Izugarrikeria da.

Zorionez, bigarren itzulirako argitu da RNk (*Rassemblement National*) ez duela Euskal Herrian ordezkartzarik lortuko. Aurreko igandeko datuak ikusita, ezinezkotzat jo daiteke halakorik gertatzea. Hiru barrutietan beste indar bateko hautagaia aterako da. Ezustea alimalekoa litzateke, bestela.

Nortzuk izango diren bihar hautatuak dugu gurean kontu nagusia. Laugarren eta seigarren barrutietan NFPkoak (*Nouveau Front Populaire*) dira faboritoak, lehen itzulian alde dezente lortu zutelako (nabarmenena laugarrenean, 15 punturekin) eta RNko lehiakideek orain arte lortutakoa baino babes handiagoa lortzea oso zaila dutelako.

Seigarren barrutian egoera oso bestelakoa da. NFP indar batuketaren baitan EH Baiko Peio Dufauk irabazi zuen lehen itzulia, eta historikoa litzateke eserlekua lortzea. Ez da, ordea, erronka erraza. Alde batetik, lehen itzulian lortutako alde ez delako besteetan bezain handia (hiru puntu eskas) eta bigarren indarra ez zelako RN izan. Gehiengo presidentzialaren Christian Deveze (*MoDem-Renaissance*) izango du Dufauk lehiakide nagusi, eta erabakigarria izango dira bai abstentzioaren joera, bai bigarren itzulira pasatu ez diren hautagaien boto-emaielen jokabidea, baztertu gabe aurkezten diren hautagaien boto-emaielen artean ere aldaketak egon daitezkeela. Lehen itzulian hautagai baten alde bozkatu ohi da. Bigarrenean, aldiz, askok beste hautagaien kontra egin ohi dute.

NFP indar batuketaren baitan EH Baiko Peio Dufauk irabazi zuen lehen itzulia, eta historikoa litzateke eserlekua lortzea. Ez da, ordea, erronka erraza

Emmanuelle Brisson-ek (*Les Républicains*) gehiengo presidentzialaren alde egin izanak Dufauen aukerak gutxitzen ditu, baina, boz kopuruan aurrekoan bezain erabakigarria ez izan arren, abertzaletasunaren ikuspuntutik EAjk hain modu argian EH Bairen alde boza eskatu izana berri aipagarria izan da. Ikasgaia ere bada bakarren batzuentzat. •

# ARRATIAKO TRANBIA

## Duela 60 urte desagertu zen Arratia eta Durango Bilborekin lotu zituen tranbia

**A**rratiko gizona Bilbora doa maiz,/ Lemoako tranbian eta beti garaiz». Gabriel Arestiren bertsoak dira, Oskorri taldeak famatu zuen “Bizkaiko aberatsak” kantakoak. ‘Lemoako tranbia’ ere esaten zitzaion Arratiako tranbiari; izan ere, Lemoa Arratiako «tranbiaren bihotza» baitzen, Jon Urutxurtu zeanuriztarrak “Arratiako tranbiaren historia grafikoa (1902-1964)” liburuan dioenez.

Zornotza, Durango eta Arratiako herriak euren artean eta Bilborekin lotzen zituen garraio bide hura Bilboko Arriaga Antzokiko plazatik ateratzen zen, eta Basauri, Galdakao eta Bedia udalerrietatik igaro ostean, Lemoara heltzen zen. Herri hori tranbiaren gunerik garrantzitsuena zen, bertan linea bitan adarkatzen baitzen: Durangorantz bata eta Zeanu-

📁 **JENDARTEA** / Xabier IZAGA

Azaroan 60 urte beteko dira Arratiako tranbia desagertu zenetik. 1902 eta 1964 bitartean Arratia eta Durangaldea Bilborekin lotu zituen. Urteurren horrekin batera, Jon Urutxurtu zeanuriztarrak tranbia haren historia jaso du «Arratiako tranbiaren historia grafikoa (1902-1964)» liburuan, garaiko irudi eta dokumentu ugariz hornitua.

rirantz, bestea. Lemoan jarri zituzten kotxetegiak eta tailer nagusiak ere. Tranbia haren historia jaso eta haren desagerpenaren 60. urteurrenean argitaratu da, arestian esandako liburuan.

Jon Urutxurtu Bengoetxea arratiarra historiazalea da, historiazale amorratua, Arratiaren eta Bizkaiko beste inguru batzuen historiari eta istorioei dagokienez. 2021ean, Arratiako posta txartelak ikusgai zituen erakusketa baten berri eman

zuen GAUR8k, hain zuzen ere Urutxurtuk 2014an argitaratu zuen beste liburu batean oinarrituta: “Arratia posta txartelean”. Erakusketako txartelen osagarri, zenbait film ere ezagutarazi zituzten, eta haietan Arratiako tranbia agertzen zen.

2014. urtean, Arratiako tranbiaren geltokietatik igarotzen zen erakusketa ibiltaria egin zuten. Urutxurtu bera izan zen haren komisarioa, eta erakusketaren helburua azaldu zuen: iragana ezagututa, etorkizunera begiratzeko modu gisa ulertzen zuen; erakusketak, besteak beste, etorkizuneko garraio ereduaz hausnartzeko balio zezan nahi zuen.

Batez ere Urutxurtuk emandako informazioa baliatuta, 2022ko uztailen, “Eleuterio txabolea” izenburuko erreportajea hartu zuten orrialde hauek, eta urte berrean, Gorbeia aterpe horren historia eta Eleuterio Goikoetxearen bizitza kontatu zituen berak liburu batean: “Eleuterio Goikoetxea eta ‘Eleuterio txabola’ (Gorbeia) 1922-2022”. Erreportaje hartan eta, jakina, liburuan ere kontatzen denez, Gorbeia mendiguneak erakarrita mendizale asko, Arratiako tranbia hartuta, Zeanuri nahiz Areatzara joaten zirela ikusita, Goikoetxeak diru apur bat irabazteko aukera sumatu zuen. Hara, tranbiaren eta mendizaleen arteko harremana, Urutxurtuk bere azken lan honetan ere nabarmentzen duena.

### TRANBIAREN HISTORIA GRAFIKOA

Ekainaren 5ean aurkeztu zen “Arratiako tranbiaren historia grafikoa (1902-1964)” liburua

Bilboko Liburu Azokan, Bizkaiko Foru Aldundiak argitaratua, euskaraz eta gaztelaniaz idatzia eta 200 argazki inguru ikusgai dituen –baita hedabideetako albisteak, iragarkiak, testigantzak eta testu dokumentu asko ere–. Horien guztien bidez, orain ere begiratu egin dio iraganari, eta 1902. eta 1964. urteen artean garraio bide horrek zeharkatu zituen udalerrietako biztanleentzako tresna garrantzitsua izan zela gogorarazi nahi izan du egileak.

Izan ere, garraio bide hori ezinbesteko erreferente bihurtu zen erabili behar izan zuten milaka lagunentzat, hura zelako lantegietara nahiz Bilboko portura joateko, merkantziak eramateko edo, arestian esan bezala, mendizaleak Gorbeia hurreratzeko garraio bide bakarra.

Lan honetarako abiapuntu gisa, Azpeitiko Euskal Burnibidearen Museoko zuzendari Juanjo Olaizolak egindako ikerketak hartu zituen Jon Urutxurtuk, eta informazio eta material berriak ezagutaraziz Olaizolaren lana osatu eta aberasteko asmoz egin du liburua.

Duela 120 urtetik gora sortu zen Bilbotik Durango eta Arratiarako Tranbia Elektrikoa, ‘Arratiako tranbia’ izenaz ezagutzen dena, eta aurtengo azaroaren 30ean haren desagerpenaren 60. urteurrena izango da.


### SORRERA

1898an Estatu espainoleko Sustapen Ministerioak Angel Iturraldi eman zion lurren tranbiaren kontzesioa. Baina, Urutxurtuk dioenez, tranbia haiek inoiz ere ez ziren ibili lurren makinak mugituta, eta «1899ko irailaren 2an, Lemoa-Artea tartearen behin-behineko inaugurazioa egin zenean,

Lemoako geltokia, Arratiako tranbiaren bihotza.







lehen tranbiak animalia-trakzioaren bidez ibiltzen ziren».

1902ko uztailaren 5ean, goizeko bederatzietan, probak egiteko lehenengo tranbia elektrikoa heldu zen Durangora. Bertako biztanleek harrera egin zioten suzirik.

Gabriel Arestiren bertsoetako arratiarrak, Bilbora beti garaiz heltzen omen zenak, artean ez zuten tranbia hura hartuko, Uru-txurtuk kontatzen duenez, aste batzuk geroago arte ez baitziren animalia-trakzioaren bitartez ibiltzen ziren tranbiak kendu; Lemoa-Zeanuri tartean trakzio elektrikoa zuen zerbitzua hasi zenean, hain zuzen.

«Azkenik, egun handia heldu zen», eta 1902ko abenduaren 6an, igandearekin, Bilbotik Durango eta Arratiarako Tranbia Elektrikoaren behin betiko inaugurazioa izan zen.

Inaugurazioaren egunean bertan, Automóvil Vitoriana konpainiak, Barazar mendatea zeharkatuta, Areatza eta Gastiez lotzen zituen autobus zerbitzua jarri zuen abian.

Trenbidearen luzera, guztira, ia 50 kilometrokoa zen; horietatik 20 Bilbo-Lemoa tarteari zegozkion; Lemoatik Durangorainoko ibilbideak ia 15 kilometro zituen, eta antzeko luzera zuen Lemoatik Zeanurirainokoak.

Lehen urteetan, Arratiako tranbiak lehia bizia izan zuen Bizkaiko Konpainia Zentralarekin, hark Bilbotik Durangorainoko trenbide estua ustiatzen baitzuen, baina Ferrocarriles Vascongados konpainiak Bilbotik Durango eta Arratiarako Tranbia Elektrikoaren akzio guztiak erosi zituenean amaitu zen bi enpresen arteko borroka, 1911ko ekainaren 12an, hain zuzen. Hurrengo urteetan, tranbiaren azpiegiturak berrizatu zituzten, baita bagoiak txukundu ere. Bidaiarien eta merkantzien garraioak gora egin zuen: 1929an, 4.196.460 pertsona eta 89.287 tona merkantzia garraiatu zituen.

Haren 60 urte baino gehiagoko historian, Arratiako tranbiaren inguruan askotariko gertakariak izan ziren: «Uholdeak, errailetatik irten izan zen, gurdi eta beste auto batzuekiko talkak, pertsonak eta animaliak harrapatu zituen, langileek istripuak izan zituzten...».

### 36KO GERRA

Urte horietan guztietan, trenbide horren errailak moztuta gertatu ziren tarte batean baino gehiagotan. Hartara, 36ko gerran, Amorebieta-Etxano eta Durango arteko zerbitzua eten egin zen, eta gerra amaitu ondoren ez zu-



Arratiako tranbiaren hasierako langileak; tranbia Bilboko Arriagako Antzokiaren plazan, 1904ko irailean zigilatutako postaxartelean; Arratiako tranbiaren eta Automóviles Vitoriana enpresaren autobusaren arteko lotura, Zeanuriko geltokian. Felipe Manterola I Manterola Familiaren artxiboa; Jon Urutxurturen artxiboa; Felipe Manterola I Manterola familiaren artxiboa

ten konponketarik egin; «alde batetik, kalteak handiak zirelako, eta bestetik, Ferrocarriles Vascongados konpainiak zati hori baliatzeko interesik ez zuelako», dio Urutxurtuk.


Garai hartan, kopuruek, batez ere bidaiarienak, etengabe egin zuten gora, aurrekoak nabarmen gaudituta, eta horren zergatia ere azaldu du liburua- ren egileak: «Hazkunde horren zergatien artean, estraperloa eta Ariz-Urbi-Galdako aldean gero eta handiagoa zen industrializazioa azpimarratu behar dira».

Amorebieta-Etxano eta Durango lotzen zituen tarte-

esan bezala, 1937an desagertu zen, eta 1950eko martxoaren 27an Lemoa eta Amorebieta-Etxano artekoa itxi zuten. Hartara, 1950etik aurrera Bilbo eta Zeanuri lotzen zituen tarte- bano ez zen geratu.

Urte haietan inoizko emaitza ekonomikorik onena izan zuen Arratiako tranbiak. 1952an, guztira, 6.749.914 pertsona garraiatu zituen. Merkantzien garraioak, berriz, errepidetik garraiatzeko zerbitzuak ugaritu ahala, beheranzko joera hartu zuen tranbiari dagokionez. 1953an diru sarre- rak aurreko urtekoen antze- koak izan ziren; hala ere, urte





hartako urriaren 15eko uholde ikaragarriek, Urbin (Basauri), Nerbioi ibaiaren gaineko zubi metalikoa eraman zuten, eta zerbitzua etenda egon zen 1954ko otsailaren 24ra arte.

#### DESAGERTZEAR


Sorreratik mende erditsua igarota, hiltzorian sumatzen zen Arratiako tranbia. Alde batetik, bidaiariak etengabe galtzen zituen eta, bestetik, haren egoera ekonomikoa gero eta larriagoa zen. Horrez gainera, zeharkatzen zituen errepidee-

tan zirkulazioak gora egin zuten, eta ondorioz, «tranbiaren eta automobilen arteko bizikidetzak txarrera egin zuten, eta tranbia oztopotzat jotzen hasi ziren», dio Urutxurtuk.

Testuinguru horretan, 1956ko abuztuaren leian, tranbiaren ibilbidean «anputazio» larria egin zuten, Galdakaoko Plazakoetxe-Lemoa tartea kendu baitzuten eta orduz geroztik beren arteko loturarik ez zuten tarte bitan zatituta geratu baitzen linea: Bilboko Urazurrutia-Galdakao, 10 kilome-

**Arratiako tranbia zaharkitua, Abusuko zubian; Zeanuriko geltokian ganadua kargatzen; liburuaren azala.**

Trevor Rowe | Burnibidearen Euskal Museoaren artxiboa; Jon Urutxurturen artxiboa



trokoa, eta Lemoa-Zeanuri, 15 kilometrokoa.

Urte bi geroago, 1958ko urriaren leian, Urbiko Firestone-Plazakoetxe tartea eta Zeanuriko erdigunerainoko sarbidea ere kendu zituzten. Itxiera horiek zirela-eta merkantzien garraioa ia erabat desagertu zen, eta bidaiariak etengabe behera egin zuten.

Urutxurtuk uste duenez, ez zegoen zalantzarik, Arratiako tranbiarako kontzesioak balioa galduko zuen egunean, bertan behera utziko zutela zerbitzua. 1962ko abenduaren 5ean gertatu zen. Edonola ere, Administrazioak ordezko autobus lineak ezartzeko baime-nik eman ez zuenez, tranbia zaharrek 1964ko azarora arte jarraitu zuten.

Izan zen, nola ez, tranbiaren falta igarriko zuenik. Esate baterako, mendizaleak, esan bezala Gorbeia aldera zihoazekak ohiko bidaiariak izan baitzituen Arratiako tranbiak, eta 1964ko azaroaren 29an,



igandearekin, agur esan zioten «ospakizun eta jai giroan».

Biharamunean, Arratiako tranbia behin betiko desagertu zen, 62 urtean Bizkaiko bizilagun askori zerbitzua eman ostean.

Ondorengo arrastoari ere jarraitu dio Urutxurtuk: «Tranbia bat Miguel Atutxa arantzazurrak erosi zuen Igorreko Garbe auzoan zeukan ostatuaren aurrean jartzeko. Hamar zenbakiduna zen, alde batean «Ceanuri» eta bestean «Bilbao» karteltxoak zituen. 1966ko otsailaren 6an, gomazko gorpulen gainean eta lau mandok tiratuta egin zuten Lemoatik Garberainoko bidea, txistularien, trikitalarien eta albokariaren doinu eta jendearen txalo eta oihuen artean». Filmatu ere egin omen zuten lekualdaketa, non eta NODO albistegian emateko. «Zoritxarrez, denbora gutxi iraun zuen bertan, eurite batzuen ondorioz Arratia ibaiak aurrean eraman baitzuen», dio zeanuriztarrak.



# LUR AZPIKO ABENTURAK



Amaia BALLESTEROS

iRRITZIA:



{ gertuko  
planak }



Araba / Artziniega



*Artziniega  
Museoa,  
«denboraren  
makina»*

Alaia SIERRA ALDEKOA

**A**rtziniegan, Aiaraldean, denetariko tresna, lanabes, arropa, produktu eta altzari zaharrik ez dituzte bota. Museo Etnografikoan bildu dituzte eta bertan ikusgai daude, antzinako pertsonen bizimodua ezagutzeko helburuarekin.

Paki Ofizialdegirekin, Artea Etnografia Elkarteko kidearekin, museoan bisita egin du GAUR8k. Behinola komentua eta mojen eskola izandako eraikinean dago museo, duela hogei urtetik.

1970eko hamarkadan baserriak alde batera utzi zirenean hasi ziren lan etnografikoa egiten Artziniegan, Paki Ofizialdegik azaldu duenez, herritarrak baserrietako tresnak erretzen eta ganbaretan zeuzkaten gauza guztiak botatzen hasi zirenean, lantegietan lanean hasiak zirelako.

Orduan erakusketa bat antolatu zuten, eta, hortik abiatuta, lehendabiziko museoa Arteko Gure Amaren Santutegian jarri zuten, antzinako zalditegiak zirenetan. Hura, baina, «txiki geratu zen», eta hamar urteren ondoren, gaur egungo kokapena lortu zuten, orduan abandonaturik zegoen eraikina. Hasieran beheko partearekin nahikoa zuten, baina orain bi eraikin dira.



## 📍 jakinbharrekoak

Uztailetik apirilera arte, astearte, asteazken, ostegun, larunbat, igande eta jaiegunetan egoten da irekita, goizez, 11.00etatik 14.00ak arte. Larunbatetan

arratsaldez ere irekita egoten da, 17.00etatik 19.00etara. Gainera, hiru eta lau eurotan saltzen den sarreran bisita gidatua dago barne. Gasteiztik

Artziniegara joateko autobusa har daiteke, baina kotxez joatea azkarragoa da. Bilbotik, A3342 autobusaren azken geltokia da.

«Teilatua berritzeko laguntza lortu genuen hasieran, baina barrukoa boluntarioki margotu eta muntatu genuen, herrikoen artean taldeka antolatuta», dio Ofizialdegik. Auzolan hori da, hain zuzen, Artziniega Museoa desberdintzen duen ezaugarrietako bat, baita museologoen laguntzaren beharrik ez izatea ere; izan ere, «museologorik onena ofizioa ezagutzen duena da», azpimarratu du Artea elkarteko kideak.

Lan horren zama ikus daiteke museoan sartu bezain pronto. Mojek neskei –Paki Ofizialdegiri ere bai– eskolak ematen zizkieten gelan hasi dugu bisita: baserriko jantziak eta horiek egiteko tresnak eta materialak; artilea, adibidez, edo lihoa, bereziagoa. Trikotatzeko makina zahar bat ere badago, martxan jar daitekeena. Gauza guztiak herrikoak bertakoak dira, edo inguruko herrietakoak. Zapatarari baten tresna eta altzari guztiak, kasu, Urduñatik ekarritakoak dira.

Edariak egiteko erabiltzen ziren tresnei eskainitako gela bat ere badago. Alboko geletan, sukaldia eta arotzaren, ferratzailearen, harginaren, orgagilearen eta saskigilearen tailer bana daude. Uztarako eta nekazaritzarako tresnen ostean, korta bat dago. Sartu aurretik, oiloen soinuek pista bat ematen dute. Orain, animalia hori besterik ez dago, baina beste batzuk izan dituzte. «Umeek maite dute», dio Ofizialdegik.

Ukuilua duelako museo berezia da, baina baita «gauzak bitrintetan gordeta ez daudelako» ere. Didaktikoagoa izateko, herrian bildutako guztia oraindik ere etxeetan edo lantegietan balego bezala dago antolatuta. Museoaren 17 geletan zehar paretak ere ez daude hutsik. Argazki zaharrek ematen dute atentzio handiena. «Guztiak herrikoak dira, herrikoek emandakoak», azaldu du Paki Ofizialdegik.

### BASERRITIK HIRIRA

Gaur egun areto nagusia dena eta antzina kapera izandakoa beheko solairuan utzita, goiko solairura goaz, eskailera zaharretan gora. Giroa guztiz desberdina da. Hemen hiriko bizimodua birsortu dute Artziniegako biztanleek. Deigarriena botika da. Ofizialdegik azaldu duenez, herrian zegoen botika batetik ateratako armairuak, apalategiak eta kartelak dira, dozenaka urtez gordeta egon ondoren, orain hemen ikusgai daudenak.



Lehen argazkian Paki Ofizialdegi. Orrialde honetan, Artziniegako gaseosa botila, farmazia zaharraren salmahaia, edariak egiteko baserriko makinak eta XX. mende erdialdeko sukaldia. Marisol RAMIREZ | FOKU



Gela berean aurrera eginda, bizarginaren txoko txikia dago, aulki berezia, tresnak eta aldizkariak dituen: ez da ezer falta. Aurrerago, tabernara sartuko da bisitaria, eta mahaia prest dago, hautsontziarekin, kartekin eta ardo botila zaharrenekin. Ondoko apalategian, Artziniegan bertan egiten zen gaseosaren botilak daude. Horrek jakin-mina piztuz gero, lantegi horretan erabiltzen zituzten tresnak eta botilartze makinak kanpoan ikus daitezke, museoaren eraikin berriagoaren parean.

Paki Ofizialdegik gertuagotik ezagutzen duen zatia eskola da; bera ofizios irakaslea denez, Artziniega Museoaren atal horren antolaketa lan egin zuen. Antzinako eskola batera sartzea bezalakoa da hona sartzea. Idazmahaiak, liburuekin, eta irakaslearen mahaia ezin dira falta, baina zintzilikatutako umeen berokiei eta paper-zorroiei eta paretak betetzen dituzten mapei esker, ikasleak patiora atera direla pentsa daiteke momentu batez.


Etxekoak beste gela batean daude, XX. mende erdialdeko etxebizitza bat bezala banatuta dagoenean, umeentzako pixontzi zahar bat duen komun eta guzti. Herriko antzinako udalbatza-aretoa ere muntatu dute museoan, Ofizialdegik azaldu duenez, munduko txapeldun izan zen sokatira taldearen arropa, zapata eta argazkien parean.

Lerro hauetan ez da kabitzen Artziniega Museo Etnografikoan ikus daitekeen guzti-guztia. Paki Ofizialdegiren us-tez, bisita bakar batekin ez da nahikoa detaile guztiei erreparatzeko.

### MUSEO BIZIA

Baina museoaren ez da soilik erakusketa. Jarduerak ere antolatzen dituzte museoan bertan. Horietako bat Museo Bizia delakoa da, museoaren tresnak eta makinak martxan jartzeko. Udako solstizioa ospatu berri dute ekainean, eta neguko ere urtero egiten dute. Gainera, txarriboda bat ere izaten da museoan. Horrez gain, zinema eta antzerki emanaldiak, kontzertuak, eta margo eta jostailu erakusketak antolatu izan dira. Gutxi berru trikotatzeko makinek nola funtzionatzen zuten erakutsiko dute, herrian egon zen puntu-lantegiko langileekin.

Gainera, ekintza kultural horiekin bertako artistei bultzada ematea dute xede, museoaren antolaketa eta apainketan parte hartu duten artista horiei beraiei.



**GAUR8** *ireki gure leihoa*



{ koaderno } **Xabier IZAGA**

# Bere burua nabarmendu gabe, lorratz nabarmena

**B**eharrak ase, ametsak errealitate bihurtu, gauzak egin... nahierara esanda eta edozein direla ere, proiektuak ez dira beren kasa aurrera ateratzen. Norbaitek pentsatzen ditu, norbaitek bultzatzen, gauzatzen eta garatzen. Batzuk nabarmenago agertuta, bestetzuk oharkabeago. Jose Mari Lopez de Elorriaga *Coppi*, esate baterako, bere burua batere nabarmentzen ez duten horietakoa izan da.

Hamabost urterekin hasi zen euskal dantzaren munduan eta txistua jotzen ere ikasi zuen. Aldi berean, mendizaletasuna piztu zitzaion; hala ere, goitizena ez zion mendizaletasunak eman, txirrindularitzak baizik. Gasteizko Manuel Iradier Elkarteko espeleologia taldera sartu zen, Arabako Espeleologia Taldearen jatorria izan zen hartan.

1963an, espeleologo gaztea dantzari eta musikaria ere bazenez gero, Gorbeiko Mairuelegorreta leizeko «zezen plaza» esaten dioten aretoan zela, bertan Jesus Guridiren «Amaia» operako ezpata-dantzaren doinurako egindako koreografia dantzatu behar zela bururatu zitzaion, eta ideia hura ez zen burutazio hutsean geratu, Manuel Iradier Elkarteak Coppi-ren ideari eutsita, 1963ko uztailaren 21ean leize horren barruko jaialdi batean, dantza hura izan baitzen protagonista, zenbait bertsolari, abeslari eta musikarirekin batera. Hala segitzen du gaur egun ere, Zigoitia Euskaraz ekimenari esker.

Hainbat motatako eragozpenak gorabehera, jaialdia baino askoz gehiago izatera iritsi zen, euskal kultura, euskara, mendizaletasuna bera jarduera subertsiboak ziren garaian, ezinbesteko hitzordu bihurtzeraino. 70eko hamarraldian, debeku artean, Euskal Herri osoko milaka lagun biltzen ziren Gorbeiko leize horren ingurura, denak barrura sartu ezinik.

Garai bertsuan, uste sendoa baitzuen euskal dantzek Araban harrobia behar zutela, Gaztetxu dantza taldea sortu eta zuzendu zuen Puri Goikoetxea emaztea izango zuenaren laguntzarekin. Oso talde garrantzitsua izan zen Gaztetxu. Coppik nahi zuen bezala, benetako harrobia.

60ko hamarraldi hartan kezka handi bat zuen: desagertzearen zeuden euskal musika tresnak berreskuratzea eta ezagutaraztea. Hartara, alboka jotzen hasi zen anaia Iñakik panderoarekin lagunduta. Jo ez ezik diseinatu eta fabrikatu ere egiten zituen albokak eta dultzainak. 1972az gero, Gasteizko jaietan Nafarroako eta Guardiako gaita taldeak baino ez zirela agertzen ikusita, «Iru bat» taldea sortu zuen, Gasteizko lehena, eta hainbat laguni irakatsi zien gaita jotzen.

Mairuelegorretakoa jaialdia baino askoz gehiago izatera iritsi zen, euskal kultura, euskara, mendizaletasuna bera jarduera subertsiboak ziren garaian, ezinbesteko hitzordu bihurtzeraino

Astebetetsu da Coppi hil denetik, Manuel Iradier Elkartearen Mairuelegorretako jaialdiaren historia bildu duen «Txingarrak» erakusketa zabaltzeko bezperan. Sugarrik gabe ere suari iraunarazten dioten txingarrak bezala amatatu da, nabarmendu gabe, baina lorratz nabarmena utzita.

Jende umil eta garrantzitsua hizpide, ezin amaitu Koldo Campos Sagaseta aipatu gabe. Hura ere zendu berria. Egunkari honetako luma atsegin bezain zorrotza, bere zutabeetan beti gordetzen zuen lerro bat esaldi berbera idazteko, gure artean ez daudenak go-goan atxikitze aldarria: *Preso politikoak aske*.

Coppi eta Koldo gogoan. •

**B**unuztar Xoriak Oztibarreko euskal dantza taldea 50 urteak ospatzen ari da 2024 honetan, eta hamarkadero egin duen bezala, proiektu berezi bat prestatu du taldea lotzeko eta indarberritzeko. Adin desberdinetako herritarrek elkarrekin ikusgarri bat gauzatzea izan da asmoa.

Jenofa Bacho da antolatzaileetako bat. Bunuztar Xoriak taldeko arduradun taldean dabil, baita ikusgarriak antolatzeko baliatzen duten Xixta kultur elkartearen bulegoan ere, bertze zazpi kiderekin batera. GAUR8ri kontatu dionez, duela urtebete hasi ziren lehen bilkura publikoak egiten, jendeari aipatzeko bazutela abiatzeko proiektua eta galdetzeko zeri buruz hitz egin nahi zuten ikusgarrian eta zer forma eman nahi zioten.

Erabaki zuten dantzari eman nahi ziotela garrantzia, nahiz eta kantuak eta antzerkiak ere tokia atxiki, Nafarroa Behereko bailara honetan badelako horiekiko lotura bat. Garaian antzerki talde bat izan zen, eta azken urteetan berpizten ari da libertimenduei esker. «Ikusgarrian garrantzitsua izan da sorkuntzak herritarren artean eraikitzea, proiektua taldearena eta amateurra izatea. Musikan, hala ere, profesional bati galdetu diogu laguntza, Xabi Leoni».

#### DENAK BESOAK ZABALIK HARTUAK

Funtsezkoa izan da inor ez baztertzea; izen-emateak ireki zituztelarik, maila jakin batekin edo deus jakin gabe hurbildu zen jendea, eta horren arabera garatu da proiektua. «Denak besoak zabalik errebitu ditugu. Eta arloetako era-



## «ASKAOT», HAIZE GOXO BAT DABIL OZTIBARREN

200 lagunek osatutako ikusgarri gotorra, Bunuztar Xoriak euskal dantza taldearen 50 urteen ospakizun

📁 KULTURA / Maider IANTZI GOIENETXE

Aurten 50 urte bete ditu Bunuztar Xoriak Oztibarreko euskal dantza taldeak. Urte osoko lan sakon baten ondoren, bailarako 200 dantzari, kantari, musikari eta antzerkilari taularatuko dira «Askaot» ikusgarrian, uztailearen 12an eta 14an, Bunuzeko Aozteiko pentzean.

maileak, kantu, antzerki zein dantzakoak, parean zituzten pertsonetara egokitu dira».

«Batzuek ez zuten sekula dantzatu, eta lehen fasean, irailetik goiti, oinarrizko urratsak erakutsi ziren: euskal jantziak, fandangoa, arin-arina... Gero, aski fite sorkuntzari buruz lan egiten hasi ziren. Urtririletik goiti, denek oinarrizko urratsak menderatzen zituztelarik, sorkuntzak eraikitzen sartu ziren gehiago. Apirilaz

gero sorkuntzak eraikiak dira eta hori guztia fintzen, detailak eta posturak hobetzen ari gara».

Kantariak, bertzalde, fase bat ukan zuten elkar ezagutzeko, eta otsailera arte denetariako kantak landu zituzten. Handik goiti ikusgarriko kantak entseatzeko ari dira.

Antzerkian, taldea eraikitzeko fase luze bat izan zen urritik urtarrilera. Inprobisazio bidez hainbat gai pausatu ziren,

eta horietatik abiatuz, emeki-emeki, antzerki testuak sortu ziren. Antzerki tailerraren eramaile bat bada, eta berak dio testuak kolektiboki idatzi direla. Bi talde daude: bata, haur eta nerabeena, eta bertzea, heldu eta gazteena. «Haur eta nerabeek beren lekua hartu nahi zuten, azken lau urteetan libertimenduak berriz abiatu baitira Oztibarren, eta helduagoak ikusten zituzten antzerkian». Ikusgarrian beren tokia ukan dute eta, bide batez, libertimenduetarako kideak segurtatu.

#### LAN PARTE-HARTZAILEA

120 dantzari inguru biltzen dira ikusgarrian, 60 bat haur eta 60 bat heldu, Joana eta Jenofa Erdozaintzi-Etxarten gidaritzapean, Eztitxu Lascor eta Maider Curucheten laguntzaz; 15 antzerkilari, haur eta heldu, Jean-Marie Irigoinek lagundurik; 30 kantari, Ekaitz Costaren gidaritzapean; bederatzi musikari, Xabi Leonen gidaritzapean, zortzi bat dendari, eta inguruan lanean ari diren guztiak (bulegokoak, ikusgarri eguneko laguntzaileak...).

Oztibarreko egunerokoan nabari da «Askaot» martxan dela. «Bestela ere bada ohitura elkarrekin aritzeko, baina gogo hori azkartu egin da bortsaz, eta espero dugu ondoko urteetan dinamika horrek bizirik segitzea. Espero dugu jendeak elkar gurutzatzen eta elkarrekin trukatzeko segitzeko gai izatea», dio Bachok.

#### EUSKARA, INDARTURIK

Halako urte batetik euskara ere indarturik aterako den itxaropena dute. «Euskara presente dago Oztibarren, baina egia da anitzek, jakinda ere, ez dutela egunerokoan erabiltzen. Proiektu honetan, kurtso

«Askaot» obrako hainbat partaide. Ikusgarria pentze batean emanen dute, oihan eta erreka bazter batean, zinez kanpoan egin nahi zutelako, toki biziki goxo batean. Sabina HOURCADE



eta tailerrak euskaraz eman direnez, parada izan da astean behin, bitan edo hirutan dantzari, kantuan zein antzerkian euskaraz aritzeko, eta ondorioz euskararen inguruko erabilpen ohiturak pixka bat moldatau dira. Espero dut eragin diren ohitura aldaketek irauenen dutela».

Bunuztar Xoriek euskaraz lan egiten dute. «Irakasle guztiak euskaldunak gara, errebitzen ditugun haur gehienak edo ikastolan dira edo eskola publikoko sail elebidunean; ondorioz denek badute gutxi edo aunitz lotura euskararekin. Haurrei zein helduei ematen dizkiegun kurtsoak euskaraz dira, itzulpena ere ematen dugu, baina urtez urte gero eta gehiago egiten dugu euskaraz, itzulpenaren beharrik ukan gabe. Dantzan, elkarri begiratu ulertzen dugu elkar, eta emeki-emeki hitzak eta ohiturak sartzen dira, euskarak bere tokia hartzen du naturalki».

Antzerkian, mintzatzeko molde berezi bat erabiltzen da, eta antzerkilariak hastapenetik euskaldunak baziren ere, indarra egin da erritmoa eta mintzatzeko molde bat atxikitzeko. «Uste dut denak hobetu garelako gure hizkuntza mailan ere», aipatu du antolatzaileak.

#### «ASKAOT» HITZAREN ERRANAHIA

‘Askaot’ Oztibarreko hitz zahar bat da, laborantza mundukoa, hiztegietatik desagertzen ari dena. Udako egun bero eta sapa horietan, laborariak belarrik naitzen ari direlarik, batzuetan altxatzen den haize zirimolatsu bat da, belar puntak itzulika altxarazten dituen. Euskal dantzak ere mugimendu hori segitzen du, eskuin, ezker, baten eta bestearen eragina eta kolorea hartuz, itxuraldatuz, berrituz.

### «Haur eta nerabeek beren lekua hartu nahi zuten, azken lau urteetan libertimenduak berriz abiatu baitira Oztibarren eta helduagoak ikusten zituzten antzerkian»

### Oztibarreko egunerokoan nabari da «Askaot» martxan dela. «Bestela ere bada ohitura elkarrekin aritzeko, baina gogo hori azkartu egin da, eta espero dugu horrek segitzea»

«Hitz hori ezagutzen zuten galdetzen hasi ginen jendeari. Duela zenbait urte kultur elkarte batek atxiki zuen izen hori, eta hortik oroitzen zuten. Laborariak bazekiten erranahia, baina gainerakoek ahantzia zuten. Oztibarreko hitz bat nahi genuen, eta ez dira ainitz, gurutzatze tokia baita, Garaziko euskarak eragina du, eta xibererak ere bai, xuka egiten da hemen. ‘Mantxut’ (barkatu) da hemengo hitz bat, eta ‘askaot’, beste bat. Maite genuen haize firfira goxo eta

Dantzariak, datorren asteburuan emanen duten ikusgarriko entseatzeko, Donaixtikoko Ezkerparetan.  
Sabina HOURCADE

girotsu horren izena ematea, gure ikusgarriak aipatzen baitu euskal dantzaren bilakaera, garai ezberdinetan ukan duen tokia».

Euskal dantzak Oztibarren garrantzi handia izan zuen. Ikusgarriak aipatzen dute Erdi Aroko pasarte bat: tokiko jautza gaitzitu zen. Lehen dantza emateko ohorea ukan behar zuen, eta mutiko gazte batek ebatsi zion ohore hori. Solda duak igorri zituen gazte horren gibeletik, eta erdi hilik utzi zuten. Garaian baziren auziak ere lehen dantza horren ohorearen inguruan.

Emeki-emeki toki hori galdu zuen dantzak. Ez botereari hain lotua, garrantzia izan zuen jaietan. Gizonek dantzatzen zuten, garrantzia zuen bikoteak sortzeko eta elkar eza gutza egiteko.

#### ZENTZUA

Garrantzitsua iruditzen zitzaien ahal bezainbat zentzua

ematea ikusgarriari, eta bi hitzaldi antolatu zituzten. Urrian, Oier Araolazak eta Gari Otamendik, hitzaldi dantzatu batean, lehengo garaietan borobileko dantzak egiten zirenetik testuinguru soziopolitikoaren arabera euskal dantzak zer bilakaera izan duen kontatu zuten. Abenduan, Antton Luku eta Jojo Bidart Nafarroa Behereko dantzari buruz mintzatu ziren zehazkiago.

Jauziak ematen ziren mundu gerra aitzin. 1930-36 urteetan, dantza eta musika biziki lotuak zeuden, eta musikari ezagunak ibiltzen ziren herrietan. Jotzeko moldearen arabera hainbat dantza sortu ziren; “Euskaldunak sorginak”, adibidez, gaur egun oinarritzeko dantza bilakatu dena.

1936ko gerraren ondorioz, errefuxiatu ainitz etorri ziren Hego Euskal Herrietik, hemen finkatu ziren eta beren kultura ekarri zuten. 1950-60 hamarkadan dantza talde handiak sortu ziren, eta hegoaldeko dantzak egiten hasi ziren; “Ezpata-dantza”, kasu. Baigorri eta Garaziko taldeetan, une batez, dantza horiek bakarrik erakusten ziren. Turismoa ere biziki garatu zen, udan frantses ainitz heldu ziren, eta dantza ikusgarri ainitz egiten ziren. Jenofa Bachoren arabera, hor sentitu zen euskal dantzaren aldaketa bat. «Lehen bazuen tokia komunitatean, herrian, eta hor bilakatu zen ikusgarrietako dantza».

Jauziek ere garrantzia galdu zuten, ez baitziren hain ikusgarriak. Urte zenbait berantago, euskal dantza taldeen baitan gogoeta eta kezka azaldu zen berriz, ikusirik Euskal Herriko beste eskualdeetako dantzak dantzatzen zituztela eta bertakoak ez. «Zer egiten dugu gure dantzekin? Baztertu edo



segitu horren erakusten? 70eko hamarkadan ohartu ziren kanpokoak ikastea ontsa zela, baina behar zirela tokiko dantzak ere landu».

**BIZIMODUAREN BARNEKO ZERBAIT**

«'Askaot' ikusgarrian gogoetazten hasi ginelarik problematika horiek pausatu ziren: nork dantzatzen zuen norendako, zein dantza erakusten dugun eta zein ez, nora nahi dugun segitu, zer ondare atxiki nahi dugun. Haizeak ongi erakusten ditu dantzak ezagutu dituen aldaketa eta moldaketak. Haizea izan baitaiteke indartsu, indar hori nahi genuen atxiki segi dezagun gure ondarearen erakusten, baina biziartzaren ere bai, moldatuz. Sorkuntzekin eta oinarritzko urratsekin segitu behar dugu jostatzen, plazera hartuz, ez bakarrik folklore gisa, zinez herrian partekatzen den elementu bat bezala baizik. Gure bizimoduaren barne den zer-bait bezala».

Hor lotzen da dantza euskarekin. «Duela bi urte beste proiektu bat gauzatu genuen profesional baten laguntzarekin. Euskal dantza tradizionala eta garaikidea nahasten genituen. Antzerki pasarteak ere baziren. Aberatsa zen, baina irakaslea erdalduna zen, eta ez genuen neurtu hizkuntza mailan izaten ahal zen eztabaida. Profesional horrekin lan egin dugularik ohartu gara euskal dantzaren tokia atxikitzea hizkuntzaren auzia ere badela».

«Erdalduna izanik arraroa, bortitza ere egiten zitzaion ikusgarria osoki euskaraz izatea. 13-15 urteko gazteak ziren proiektu hartan, gehienak ikastoletako ikasleak. Beren ikasle bizian eta familietan bazuten kontzientzia euskara salbatu nahi badugu gure esku



dela. Talka bat izan zen irakasle harekin. Arduradunak ez ginen ohartu eztabaida hori bazela. Gu ere sartu ginen barrenean. Biziki interesgarria antzeman genuen, bortitza izan bada ere batzuentzat, eta erabakiak hartu ditugu elkarrekin. Ohartu gara hizkuntzaren tokia ez zela naturala; guretzat bai, baina ez denentzat. Ohartu ginen behar genuela hori ere zaindu. Bilkura publikoetan ere euskarari eman nahi izan genion garrantzia, eztabaidak sortzen bazituen ere».

«Dantzak sortzen ditugu, baina noraino moldatzen ahal ditugu euskal dantzak bere nortasuna gal ez dezan? Garaiaren eta pertsonaren arabe-

Erabaki zuten dantzari eman nahi ziotela garrantzia, nahiz eta kantuak eta antzerkiak ere tokia atxiki.  
Sabina HOURCADE

ra erantzun ezberdinak emanen dira, baina inportantea da horretaz kontziente izatea».

**SORKUNTZAK**

Dantzak Jenofa eta Joana Erdozaintzi-Etxartenak dira. Musika eta moldaketak, Xabi Leon, Ekaitz Costa eta Serge Labes-

caurenak. «Azken kanta Ozti-barreko bi gazteren bertsoek osatzen dute. Nahia eta Goizane Etxeberri dira. Biziki harro gara. Eskolarteko txapelketan bigarren egin du Nahia». Afixa eta argazkiak Sabina Hourcaderenak dira.

Oztibarreko herriak, EKE, Herri Elkargoa, Crédit Agricole eta tokiko enpresak dituzte babesle.

**BI EMANALDI**

Kalitatezko ikusgarri hau bi aldiz eskainiko da, Bunuzeko Aozteiko pentzean, herriko etxetik hurbil: uztailaren 12an, ostiralez, 21.00etan, eta uztailaren 14an, igandez, 11.00etan. Ostiralean Punttu Kakotx txaranga izanen da eta igandean, kontrabanda.

«Ordu eta erdi eta bi ordu artean irauten du. Jendea animatzeko erranen nuke ikusgarri biziki aberatsa izanen dela, forma aldetik arlo ezberdinak ditu, eta bakoitzean alimaleko lana egin da sorkuntza mailan eta gogoeta biziki sakonak eraman dira», dio Bachok. Gainera, pentze batean emanen dute, oihan eta erreka bazter goxo batean. «Plazerarekin errezibituko ditugu hurbilduko diren guztiak, gure lana eta bizimoldea partekatzeko gozoz gara».

Bunuze eta Zarautz adiskidetuta daude. Bazen lotura bat bi ikastoletako gurasoen artean; Zarauzkoak asteburu pasa etorri ziren duela bizpahiru urte, eta Bunuztar Xoriek ikusgarri ttiki bat eman zuten. Urte baten buruan hemengo gazteak Zarautzera joan ziren gurasoekin asteburu pasa, eta elkarrekin ikusgarri bat eskaini zuten. Eraikitako zubia segitu nahi dute eta, noski, zarautzarrak gonbidatu dituzte "Askaot"-ez gozatzera.

**«Gogoetatzen hasi ginelarik problematika horiek pausatu ziren: nork dantzatzen zuen norendako, zein dantza erakusten dugun eta zein ez, nora nahi dugun segitu»**

**«Ohartu gara euskal dantzaren tokia atxikitzea hizkuntzaren auzia ere badela, behar dugula hori zaindu. Bilkura publikoetan ere euskarari eman nahi izan diogu garrantzia»**



## Gehiegi

Itzea URKIZU  
ARSUAGA

**D**antza ero bat egin nahi du eguraldiak gurekin azkenaldian. Gustura nengoke, gutxienez, zortzikoaren metri-kari utsiko balio –*hiru eguzki, bi euri* edo, tira, *hiru euri, bi eguzki*–, baina, ezta hori ere. Biko konpasa, egunero: *tan-ta tan-ta, tan-ta tan-ta...* Zutabegintzaren logikan, anakronia hutsa da uztailean ekain amaierako zortzikoarekin gogortzea; festa ondorengo nostalgia gehiegi luzatzea. Baina, gehiegi zer ote den...

Uda hasieran aterkipetik begirada ezin altxatu ibili behar izateak, atmosfera anakroniko honek, dantzan jarri baitu etxe askotako armairu-antolaketa. Erretiratzekoak zirenak kalejiran pilatu zaizkigu egun beroenetan eskura izan

beharreko jantziekin. Ez dugu astirik hartu guraso eredugarrienean apalak izan beharko lituzketen moduan atontzeko. Igerilekuko motxila hor nonbait zegoen eta, kasualitatez, baina salbatu digu arratsalde sargoria.

Amorrazio absurdo honen aurrean etsi, eta erabaki dut fandango bat dantzatzea zeruak goizero dakarrenarekin; dendara jo dut semeari “u” hizkiz has-ten diren urtaro guztien arteko nahasketak honetarako neurrikoak erostera.

Aurretiaz ezagutzen nituen lokala eta espazioaren banaketa: eskuinean zakildunak, ezkerrean aludunak. «Begiratu egingo dut» esan, eta balsean jardun dut dendako hormekin: orain alde batera, orain bestera. Bi aldeetan ditudalako

gustuko gauzak, bai, baina baita neure buruari ariketa hori berariaz ezartzen diodalako ere: koloreak kolore eta sailkapenak sailkapen, estetikoki polita eta funtzionalki eroso iruditzen zaidan hura aukeratzea gure haurrentzat. Nire dantzari-logikari zortziko zurruna berez ateratzen bazaio ere, gorputza behartzea konpas irregularretara.

Dena bikain zihoan, harik eta dendariak azken erredoblea jo duen arte: “*Leggin* horiek mutil batentzat ez dira gehiegi?”. Gehiegi, zer? Erosoegi? Moreegi? Femeninoegi? Homosexualegi? Transedo-orain-modan-dauden-eta-babestenditudan-baina-aldi-berean-liseritu-ezinditudan-identitate-horietako-bat-izatek o-arriskutsuegi? Gehiegi zer ote den... •

## Ezkutuko izenak

Miren AZKARATE  
BADIOLA

**E**pidemia isila, horrela deitzen zaio suizidioari edo nork bere buruaz beste egiteari. Beste behin euskarak ederki asko izendatzen duen hitz baten adibidea; ikusi eta guzti egiten duzun horietakoa ahora irtenarazten duzun momentuan.

Epidemia dela argi dago, datuak ikusi besterik ez dago. Adibidez, Araban 12 egunean suizidio bat ematen da edo, EAeko iazko datuen arabera, 140 pertsona hil ziren modu horretan. Eta hemen egiten dugu topo definizioaren bigarren hitzarekin: isila da ez delako heriotza horiez hitz egiten; are gehiago, bakarrik

egiten direnak direlako ere gehituko nuke nik. Bakar-bakarrik, nahiz eta, kasik ziur, jendez inguratuta dauden pertsonak izan.

Oso erabaki ausarta iruditu zait beti, gauza bat delako burutik pasatzea, baina oso bestelakoa da gauzatzea, pausoa egitea.

Zer pasatuko zaio –eta ez zaio pasatuko– burutik pertsona horri? Noiz da momentu egokia ekintza burutzeko? Planifikazioak nolako elaborazioa du?

Datuak beldurgarriak dira eta urtetik urtera gehitzen doaz. Goraka doaz saikerak (batez ere, gazteen artean ikaraga-

rri igo dira) eta protokoloen aktibazioak ere bai. Beheraka doaz, aldiz, laguntzeko baliabideak, fisiko zein materialak.

Ni datuak ematearen aldekoa naiz, ez morboagatik, ez alarmismoa sortzeagatik. Gainontzeko heriotza datuak ematen badira, horiek zergatik ez? Dei efektua egiten al dute bada beste heriotza motek? Honek zergatik bai? Bistan da ezkutuan mantentzeak ez duela arazo larri hau konponduko. Argi eta garbi hitz egin beharko genuke, datuak mahai gainean jarri eta merezi duen arreta eskaini, konponbiderik eman ahal izango bada. •



## Maider AZANZA SESÉ

Donostiako Informatika Fakultateko irakasle eta ikertzailea, UPV/EHU

# Software probak: nahi eta nahi ez

**1** 976ko udara, Olinpiar Jokoak. Uztailaren 18an **Nadia Comaneci barra asimetricoan ariketa bukatzen ari zen.** Irteera perfektua. Txalo zaparrada entzun zen eta epaileek nota eman zuten. Markagailuan, “1.0”. Zer demontre? Epaileek laster argitu zuten beren kalifikazioa “10.0” zela. Baina sistemak ezin zuen hori erakutsi, diseinatu zutenean ez zutelako pentsatu Olinpiar Jokoetan lor zitekeenik. Historiako lehena izan zen.

*Civilization* bideojokoan badago antzeko istorio bat. Bertan, hainbat naziotako liderrek agresibitate maila jakin bat zuten, 1 eta 12 artekoa. Demokrazia iristean, maila bat jaitzen zitzairen agresibitate hori liderrei. Gauza da, Gandhi-ren kasuan, bere hasierako maila lekoa zela eta bat kenduta, eta tartea 1etik 12rako izanda, 12ra pasatzen zela, “Gandhi nuklear” bihurtuz eta inguruko guztiei arma atomikoekin eraso eginez. Egia da hori legenda dela, nahiz eta jokalaria askok sinetsi, baina ondo erakusten du software batean murreretan dauden balioak probatzearen garrantzia.

Aurreko bi gertaerak anekdotak dira, baina sistemak gaizki diseinatzearen ondorioak askoz larriagoak izan daitezke. Mars Climate Orbiter NASAk jaurtitako espazio-zunda robotiko bat zen, Marteren klima, atmosfera eta azaleko aldaketak aztertze-ko helburua zuena. 1999ko irailaren 23an, espazio-ontziarekiko komunikazioa galdu egin zen, Marteren orbitan sartutakoan, eta suntsitu egin zen. Bi neurketa-sistemaren arteko nahasketa bati egotzi zioten akatsa: NASaren SI unitatea (sistema metrikoa) eta AEBetako ohiko unitatea, espazio-ontziaren erakitzatzaile Lockheed Martinek erabilitakoa. Aldez aurretik egindako probetan ez zen nahasketa hori antzeman.

**Softwarea ez da plazaratu baino lehen bakarrik probatu behar. Askotan, bere bultzatzean zehar, aldaketak egin behar zaizkio, eta ho-**

**rien ondoren ondo funtzionatzen jarraitzen duela ziurtatu behar da.** Gogoratu, adibidez, pezetak alde batera utzi eta euroak izatera pasatu ginenekoa, 2002. urtekoa. Ordura arte diruarekin lan egiten zuten sistema guztiek zenbaki osoekin egiten zuten lan, pezetek ez baitzuten komarrik. Baina eurora pasatu behar genuenean, denek zenbaki errealekin –hots, komekin– lan egin ahal izateko eboluzionatu behar izan zuten eta ondo zebiltzala ziurtatu.

Lau adibide besterik ez ditugu aipatu. Orain pentsatu zenbat software erabiltzen duzun zure eguneroko bizitzan: mugikorrean daramatzazun aplikazioetatik zure kotxea kontrolatzen duen softwarea, edo zure garbigailuko programetatik ospitaletako robot kirurgikoetara. Guztiek espero bezala funtziona dezaten proba prozesu zorrotzak pasatu behar izan dituzte. Eta noski, softwarea zenbat eta kritikoagoa izan, orduan eta zorrotzagoa da prozesua, bere esku bizitzak dituen softwarea barne.

Laburbilduz, softwarearen probak funtsezkoak dira gure gizarte teknologikoan. Ezinbestekoak dira, bai garapenean, bai aldaketa bakoitzaren ondoren. Etengabeko hobekuntza eta zorrotasuna behar dira, gure teknologia gero eta konplexuagoa eta kritikoagoa bihurtzen ari den heinean. •



Softwarea aldatzen joan behar da eta ongi funtzionatzen jarraitzen duela ziurtatzen. Ngampol THONGSAI | GETTY IMAGES



# BEHATXULO[TIK

Juantxo EGAÑA



JOSE BELZUNCE. NAFARROAKO ARTXIBO NAGUSIA.

## 1930EKO SANFERMINAK

Iruñeko alkate Francisco Javier Arbizu peñetako presidenteeekin elkartu zen 1930eko sanferminen bezperan, jaietan kontuan hartu beharreko arau batzuk jakinarazteko. Alkatearen oharren artean, gazteak mozorrotzeko debekua zegoen, jaiak «desnaturalizatu eta inauteri bihurtu baitira». Alkateak muga hau jarri zuen: «Goizaldeko ordu bata arte bakarrik kantatu, oihukatu eta dantzatu». Gainera, ohartarazi zen ez zitzaizela utziko mutilkuadrillei zirkulazioa eteten zezenketen ondoren. Alkateak azpimarratu zuen, halaber, ez zutela onartuko «kanpoko parrandazaleen zalapartarik, pikaro planean etortzen baitira». Hori bai, prentsak Biarritzeko alkatea urte hartako sanferminetako bisitarien artean zegoela jakinarazi zuen. Andosillako Jose Belzunce militar eta argazkilari afizionatuaren irudian, txistulari talde bat ikus daiteke San Nikolas plazan, Andueza gozotegiko eta Iribarren espartin-dendako erakusleihoak atzean direla.

# bidaiari

naiz: -en bidaia aldizkaria euskaraz

Lurralde  
berrietara  
goaz



dagoeneko  
zure  
kioskoan  
salgai

1,50€

## eta gainera...

**KYZYL TUU**  
YURTA EGILEEN  
HERRIA

**MANEKO UHARTEA**  
IRLANDAKO ITSASOAN  
HARRO GELDIRIK

**EUSKAL HERRIAN**  
**BARRENA**  
UDA-GIROAN

**PUREPECHA**  
AZTEKEK MENPERATU  
EZ ZUTEN HERRIA

**BIANDITZ**  
URA, LURRA, SUA  
ETA HAIZEA

**Elkarrizketa** Ezra Gojenola Pertika: «Euskal Herrian ni naiz munduko herri guztiak bisitatu dituen bakarra **Bertatik bertara** Boilurraren museoa, harribitxi gastronomikoa Lokizen magalean; Urmugaren Urtanta, Nestor Basterretxeari omenaldia; 'Lurrina Balenciagaren garaian' erakusketa, usaimenaren bidezko bidaia usaintsua; Faltzesko Baratxuriaren Eguna, Nafarroako Erriberako herriaren omenaldi xumea.

